


BERRIGARA

6. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, irailak 13



San Martin jaiak

Autopulmans Araba S.L.

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

AUTOBUSAK

Telefonoa: 76 55 70

Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidai, despedida, lantegi, eskola...

ESKA EZAZU AURREKONTUA!!





VENTANAS SAN MIGUEL

*Ventanas San Miguelekin...
denean irabaziko duzu.*


Erosotasunean irabaziko duzu.

*Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.*

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.


Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



*Etonki guñera!
Denean irabaziko duzu.*

Albeniz

ARGAZKIDENDA



**Ibargarai, 12
☎ 907 83 47 84**

Karneteko argazkiak momentuan.

Era guztietako argazki erreportaiak:
ezkontzak, jaunartzeak...

Estudioan egindako argazki
erreportaiak.

Argazkien errebelatua ordu batean.

Argazkiei markoa jartzea.

**ESKAINITZA BEREZIA: Karrete bat eta argazki
album bat doan edo %25eko DESKONTUA
errebelatu bakoitzeko.**

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
4870 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Agitaratzailea:

ARDUN Elkarteak.

Zuzendaria:

eko Azkarate

Erredakzioa:

duardo Mendibil

Elkoroberezibar

ne Larrañaga

Kontakizak:

eko Azkarate

Publizitatea:

ex Azkarate

Erpidetzak:

orka Elortza

Estuen zuzenketak:

sepan Plazaola

mpri Laskurain

ex Labaien

Erredakzio kontseilua:

orka Elortza

mpel Angel Elkoroberezibar

ex Labaien

Komikiak:

edor Rodriguez

orka Ortega & Jon Alvarez

ex Ugalde

orka Azkarate

Kanaketa:

antxangorri taldea

Bibada:

1000 ale.

Aprimategia:

entu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Age gordailua:

50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iruzkinen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

PEDRO RICO

Lagunak Elkartekoa

- Zenbat talde arituko dira aurtengo futbito txapelketan?

- 45 bat, 500 lagun inguru. Aurreko denboraldian bezala lau maila izango dira eta partidu guztiak Kiroldegian jokatuko dira irailaren 28tik aurrera. Asteazkenean, hilak 18, talde guztiakin bilera egingo da 7etan Kultur Etxean eta kome-nigarria da talde guztietako ordezkariek bertaraztea.

- Partiduak beste kantxaren batean ere jokatzeko ideia aztertuz duzue?

- Oraingoz ez. Gainera Kiroldegiko kanpoko kantxa hobetu egin du Udalak. Baina antolakuntzan jende gehiago sartzan bada aukera hori ere aztertu daiteke.



- Askori gehiegizkoa iruditu zaio 17.000 pzta.ko inskripzioa...

- Kontuak argi eta garbi azalduko ditugu, sarre-rak eta gastuak. Esate baterako, Udalak 564.000 pezeta kobratu zizkigun iaz Kiroldegia erabiltzeagatik (aurten zerbait igoko da kopuru hori) eta beste gastu batzuk ere badira: baloiak, kartelak, eskolarteko txapelketak...

“Kiroldegiko kantxaz gain, beste gastu batzuk ere badira: baloiak, kartelak...”

I T U R R I O N E T I K

Irala zinea behera botatzeko lanak urrian hasiko dira

Udalak eta Espectaculos Bergara S.A.k otsailean sinatutako hitzarmenaren arabera, Irala zinea aretoa behera botatzeko lanak urriaren 7a baino lehen hasi beharko dira. Lanak amaitu ondoren, Espectaculos Bergara S.A.k abenduaren 26rako Irala zinea aretoko lursailean lokal komertzialak, bulegoak eta garajeak jarri ahal izateko proiektua aurkeztu beharko du Udaletxean. Gogoratuko duzuen bezala, lursaila berkalifikatu eta Udalarri dagokion %15eko aprobetxamenduagatik Espectaculos S.A.k 18 milioi pezeta ordaindu zizkion Udalarri.

E S A N
D U T E

“Euskarazko herri komunikabideek izugarritzko etorkizuna daukate. Egia esan, duela urte batzuk puztu egin zen mugimendu hori, baina orain bere onera etorriko da ziur aski. Nik dakidala, herri komunikabideak sortu diren lekuetan ez dira itxi, atzeraka ez dute egin, beraz, aurrerabide bat izan dela argi dago.

Etorkizunean, gainera, telebistak sortuko dira batez ere.

(...) Herri komunikabideak oso mesedegarriak izan dira euskararentzako. Txingurri askok izugarritzko lana egin dezakete, elefante batek bota dezakeen horma botatzea ere. Duela urte batzuk liburuak eta aldizkariaren bat, beste aukerarik ez zegoen euskaraz irakurtzeko. Egun, zorionez, herri komunikabideak hazi eta Egunkaria ere etorri da bide beretik, etorkizunean gehiago izango dira, askoz ere irakurle gehiago izango direlako”.

JON ANDUEZA

Kazetaria
ARGIA



UN LOCO A DOMICILIO

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.



NUNCA HABLES CON EXTRAÑOS

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:30.
Martitzena: 19:30
(ikuslearen eguna).

Zinea

▼▼ Ospe handia lortu duen **Jim Carrey** (*Ace Ventura, La máscara*) aktorearen azken filmea. **Steven Kovacs** arkitektoak (**Matthew Broderick**) telebista instaladore bat (**Carrey**) kontratatuko du kánale guztiak doan ikusteko. Baina honek lagun bat behar du eta *Kovacs* buruhauste ugari emango dizkio...

▼▼ **Antonio Banderas** eta **Rebecca De Mornay** (*La mano que mece la cuna*) aktore ezagunak dira pelikula honetako protagonistak. **Sarah Taylor** psikologoa (**De Mornay**) hiltzaile baten (**Harry Dean Stanton**) pertsonalitatea aztertzen ari da eta orduan **Tony Ramirez** (**Banderas**) pertsonaia enigmatikoa ezagutuko du. Berehala psikologoaren bizitzan gauza arraroak gertatzen hasiko dira.

▼▼ **Edu Muruamendiaraz** eta **Amaia Agirre**, Euskadiko dantza sueltoko txapeldunei, omenaldia eskainiko die Udalak ostiralean Frontoian, dantza sueltoko txapelketaren atsedendian. Eduk eta Amaiak hiru bider irabazi dute Euskadiko Txapelketa eta Nestor Basterretxearen eskultura Bergarara ekarri dute.

Deiak

▼ **1933an jaiotako**en bazkaria irailaren 22an Antxoni jatetxean. Aurretik meza izango da Santa Marinan 13:15etan. Bazkarirako txartelak Intxorta tabernan (76 22 76 telefonoa).

▼ **Itzulpen lehiaketa.** EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak "Literatura Unibertsala" bildumarako itzulpen lehiaketa zabalduko du datorren irailean. Itzulgaien zerrenda eta zehetasunak irailaren 24tik aurrera emango dira elkartera deituta (27 71 11 telefono zenbakia).

▼ **Alderdi Eguna.** Irailaren 29an ospatuko den Alderdi Eguna joateko autobuserako txartelak Batzokiko tabernan. Irteera, goizeko 9etan Beheko Estaziotik.

Ogia

▼ **Igandea 15:** Mizpildi.
▼ **Astelehena 16:** Ogizun.

FARMAZIAK

▼ **Eguakitza 13:** Puy..
▼ **Zapatua 14:** Guallar.
▼ **Domeka 15:** Guallar.
▼ **Astelehena 16:** Camacho/Corcu..
▼ **Martitzena 17:** Puy/Irizar.
▼ **Eguaztena 18:** Guallar/Amezua.
▼ **Eguena 19:** Estella/Ruiz.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA



KENSINGTON

Eguzki Auzoa, 7 • ANTZUOLA • ☎ 78 70 30



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE



- ▼ Cambridge Unibertsitatean titulaturiko irakasleak
- ▼ Esperientzia handia enpresetan
- ▼ ACEIGeko kide bakarrak Deba Garaian
- ▼ Cambridge azterketen prestakuntza (ES 438 Cambridge azterketako kide antolatzailea)
- ▼ Talde txikiak eta homogeneousak

Matrikula zabalik, zatorz!! Klaseak 16an hasiko dira!



University of Cambridge

Local Examinations Syndicate

1996ko ekainean azterketa gainditu zutenen zerrenda

1. ANE GARMENDIA KONDE
2. ANE ETXEBERRIA ALDAZ
3. IZASKUN SARRIUGARTE MOCHALES
4. IRUNE MUGERZA ARANZAMENDI
5. NEREA BASTIDA MARTINEZ DE BUJO
6. IBON GARCIA EIZAGIRRE
7. JOSEBA ARRILLAGA GOIKOETXEA
8. SUSANA ALVES TORRES
9. ANDONI KORTAZAR ANDUEZA
10. ITZIAR ZUBIKARAI IGARZA
11. PILAR DIEZ DE LA FUENTE
12. NAIARA BABARRO ACEITON
13. LEIRE DIEGUEZ ALBERDI
14. ALEX LOPEZ ONDARZA
15. JOANA IBARLUZEA GABILONDO
16. MIREN LARRAÑAGA AGIRREGOMEZKORTA
17. NEREA MENDIZABAL BADIOLA
18. ARKAITZ ORTEGA TRUCIOS
19. ION ARRIETA NARBAIZA
20. IDOIA AGIRREGOMEZKORTA LIZARBURU
21. LORE BEREZIARTUA UNZUETA

22. LEIRE UGARTEBURU GABILONDO
23. ION VILARCHAO GALARRAGA
24. DIEGO TENA MARTIN
25. SERGIO MORENO DE JUAN
26. BEÑAT ETXEBERRIA MUJIKI
27. JAIZKI BAKAIKOA LARREA
28. NEREA NUÑEZ GODOI
29. XABIER ARREGI GARCIA
30. LIDE OREGI SANCHEZ
31. IGOR GARITANO ALUSTIZA
32. AITOR BERRAONDO ALBERDI
33. ALBERTO CACERES GUILLEN
34. IBAI AZKARATE LARREA
35. ION ARREGI RETOLAZA
36. MIREN ITURBE BERASATEGI
37. XANTI ITURBE BERASATEGI
38. ISMENE FULGENCIO ELIZBURU
39. JUAN MANUEL NAVARRO NAVARRO
40. XABIER SAN MARTIN ASTORKIA
41. GAIZKA ARGARATE BELATEGI
42. AITZOL GARMENDIA KONDE
43. IBAI GURRUTXAGA GOIKOETXEA
44. IÑAKI BENGOTXEA ANSOLA
45. EIDER JAUREGI ELORZA

Congratulations!!

Bergarako odol emaleen agurra

Abuztuaren 7xan izan giñuan odol ateraldi eta bergararrak aurten berriz izan giñan lenengoak, 67 lagunek emon zeben odola eta hauen artian 11 berrik. Mundiala.

Baña hau lortzeko Berrigara, El Diario Vasco, Deia, Arrate Irratia eta Loiola Irratiak laguntasun haundixa emoten doskue. Eskerrikasko baitxa, Bergarako Edel, Mujika eta Herran komertzioei, hauek kartelak jartzen ditxuztelako.

67 lagunek odola emon eta gero, hurrengo baterako gogortzeko mai aundi eder bat janez eta edanez beteta. Kanpoko jendea beti esaten dabil, "nolako ogi ona daukazuen hemen". Bai, hala da, ordaintzeke, Konde Panadero-kua, Bolintxo eta Mizpildiri eskerrak. Eta, bustitzeko, daukagu Lopez Hojeda eta Manso anaiak. Eskerrak honei be.

Eta diruzko laguntasuna, Udalak, Caja Laboralek, Kutxak, eta nola ez, odola emon ezinda, diruz laguntzen doskuen denei eskerrak. Denbora gutxitik hasitxa, Bedelkarrek be laguntzen dosku. Eskerrik asko guztiei.

BERGARAKO ODOL EMALEEN ELKARTEA

Proposamen batzuk

Kaixo Berrigarako lagunak.

Berrigarako irakurle amorratua naiz, astero goitik behera irakurtzen baitut. Eta oso gustora irakurri gainera. Sekulako lana egiten duzue, ez baita erraza izango astero-astero herriko informazioz aldizkaria betetzea.

Sail batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zaizkit eta orri batzuk oso interesgarriak iruditzen ez zaizkidan arren, guztiak irakurtzen ditut.

Hala ere, proposamen batzuk egitea gustatuko litzaidake, faltan botatzen dudan informazioaren inguruan. Esate baterako, faltan botatzen dut Bergarako historiari edo Bergarako seme izan direnei buruzko ataltxoak. Uste dut badagoe la zer idatzi horren inguruan eta errebista jartzeko interesgarria izango litzateke. Gure herriak, historian zehar, garai ezberdinetan, pertsonaje ospetsu eta nabarmendu direnak eman ditu eta horiei buruzko aipamena astero egitea ondo egongo litzateke.

Bestalde, ez naiz oso kirolzalea eta orokorrean, kirolari tarte gehiegi eskaintzen diozuela uste dut. Dena den uler-tzen dut kiroletako albisteak direla komunikabideetan arrakasta gehien dute-netakoak eta herriko kirolariei buruz informatzea ez zait gaizki iruditzen, niri gehiegi interesatu ez arren. Hori bai, fal-

tan botatzen dut eskola kirolari buruzko informazioa. Noizbehinka zeozer ikusi ahal izan dut zuen errebistan, baina benetako jarraipena ez zaio egiten eskola kirolari.

Uste dut merezi duela eskola kirolari tratamendu berezia ematea, haur askok hartzen baitu parte ia urte osoan zehar. Haurrak eurak ezezik, hauen gurasoek ere gustora irakurriko liguke horri buruzko informazioa eta hurrei ilusio haundia egingo lieke Berrigaran irtetzek. Saiatu beharko zinatekete informazio hori ematen.

Beno, besterik ez, beste proposamen edo iritzi batzuk ere emango nituzke, baina oraingoz nahikoa dela uste dut. Ea nire proposamenak kontutan hartzen dituzuen. Bitartean segi horrela, lan polita egiten duzue eta.

E. PEREZ

Tiira biraka



ALEX UGALDE

Xipizaro ludoteka

Xipizaro ludotekak irailaren 17tik aurrera ekingo dio aurtengo ikasturteari. Interesatuak Seminarioko lokalean egin dezakete matrikula, arratsaldeko 17:15etatik 19:30etara.

Islada bideogela

Kultur Etxeko Islada bideogelak bideo ikastaroa antolatu du. Irailaren 23an hasi eta azaroaren 6ra arte iraungo du eta sarrera ikastaroa izango da. Astelehen, asteazken eta ostegunetan emango da arratsaldeko 6etatik 8:30ak arte. Ikastaroaren prezioa: 7.000 pezetakoa da (3.500 pzta. langabetuentzat).

Kanpoko igerilekuak itxi egingo dira

Zapatuan itxiko dira kanpoko igerilekuak eta domekatik aurrera barrukoak zabalduko dira. Aurrerantzean, beraz, goizeko 8etatik gaueko 9ak arte zabalik izango dira barruko piznak.

Musika Eskola


Irailaren 17an hasiko dira Musika Eskolan solfeo, piano, akordeoi, klarinete eta kitarra ikastaroak. Beste guztiak urriaren 1ean. Matrikula egiteko epea zabalik dago.

Eztabaida ur tarifaren inguruan gobernuaren eta HBren artean

HBko udal zinegotzi taldeak Bergarako ur tarifa eskualdeko garestienetakoa dela salatu du idatzi baten bidez. HBko datuen arabera, Arrasaten adibidez, Bergaran baino gutxiago ordaintzen dute. Bergaran hiruhilabeteroko tarifa minimoak 3.320 pezeta balio du (kontsumo minimoa 40 metro kubikokoa da eta 83 pzta. balio du metro kubikokoa). Arrasaten, berriz, 45 pzta./m³ (kontsumo minimoa 30 metro kubikokoa da).

Victoriano Gallastegi alkateak, berriz, beste irakurketa bat egiten du: *"Hasteko 46 pzta./m³ ordaintzen dira Arrasaten eta diferentzia ez da hainbestekoa. Bi herrietako kontsumo minimoa kontutan hartuz gero, Bergaran 0,09 pzta./l. ordaintzen dira eta Arrasaten 0,04 pzta. Baina Arrasaten 40 m³ kontsumituz gero 0,14 pzta./l. ordaindu behar dira"*.

EAJ, EA eta PSE-EEK osatzen duten tripartitoak ur tarifa %23an igotzea ere salatu du HBk. Iaz 67,5 pezeta/m³ ordaintzen ziren eta aurtun 83 pezeta. Alkatearen esanetan, legez, ura autofinanziatu egin behar da eta Haziendako teknikariek egiten duten azterketa ekonomikoaren arabera zehazten da igoera. *"Aurtengorako egindako prebisiok segundu bakoitzeko 70 litro kontsumituko zirela zioten, baina lehen bi hiruhilabeteetan 64 l/s. kontsumitu dira eta beraz hurrengo*



64 litro segunduko kontsumitu dira lehen sei hilabeteetan Bergaran.

urterako hori kontutan hartuko da".

HBk, era berean, gure ur errekurtsio propioen aberastasuna azpimarratu du behin baino gehiagotan, Urkuluko urez aparte %35a errekurtsio horietatik lortzen baita. HBk gure errekurtsioengatik ordaindu behar izatea salatzen du baita, izan ere %35 horregatik 26 milioi pezeta ordaintzen omen baititu Udalak. Alkateak Albitxuko depositoarenean ardura Kontsorzioari ematean honek depositoarenean hobekuntzan 20 milioi inbertitu dituela esaten du. *"Gainera lehen zegoen langilea jubilatzean Udalak 7 milioi aurrezten ditu eta Kontsorzioak, mantenimenduagatik, 1,5 pzta./m³ kobratzen digu (23 milioi urtean). Bestalde, orain ura osasun garrantia guztiekin jasotzen dugu"*.

Azkenik, kontadore irakurketekin izandako

akatsak, ur ihesak eta iruzurrak kontutan hartuz aurtun 33 milioi pezeta galduko direla esaten du HBk. Oposizioko alderdiak Olabarrena auzoan eta zenbait baserrietako ur horniduran dauden arazoak ere gogorarazi ditu. Alkateak ihesen portzentaiak %30ean kokatzen dela adierazi du, *"portzentairik onena %25ekoa denean. Bi urte barru Kontsorzioak eramango du uraren kontsumo guztia eta %25eko portzentaiak garantizatuko die herri guztiei. Ur horniduran dauden akatsei buruz, Olako ur hornidura probisionalki soluzionatuta dago eta Altos Hornoseko sektorearen garapena ematen denean guztiz soluzionatuko da ur hornidura. Bestalde, ia ezinezkoa da baserri guztietara ura baldintza onenetan eramatea, baina ez daude ur faltan eta hobekuntzak egingo dira laister"*.

HILDAKOAK
 Maxima Manzano Perez
 Irailak 5, 91 urte.

JAIOTAKOAK
 Janire Jimenez Avila
 Abuztuak 31.

Emakumeei zuzendutako hainbat ikastaro


Udaleko Gizarte Ongizate Sailak emakumeei zuzendutako sukaldaritza, brikolage eta yoga ikastaroak antolatu ditu. Ikastaro bakoitzeko, hilerro, 800 pezeta ordaindu beharko dira (matrikula egiterakoan 3.000 pezeta ordaindu beharko dira). Interesatuak matrikula egin dezakete irailaren 11tik 19ra, goizeko 9etatik ordu batera Gizarte Ongizatean.

Ondasun higiezinaren eta ekonomi ihardueren zergak

Herritar guztiei jakinarazten zaie 1996ko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren eta Ekonomi Ihardueren Gaineko Zergaren erreziboak ordaintzeko epea irailaren 1etik azaroaren 10era zabalik izango dela. Borondatezko epea amaitu ondoren, gainkarguaz, exekutibozko epeari hasiera emango zaio. Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunak, ordainketa agiria urriaren 10a baino lehen jasotzen ez badute, Kontuhartzailtzako bulegotik pasa daitezke.

HHI eskolan matrikula zabalik

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko Eskolak (HHI-EPA) aurtengo ikasturterako matrikula epea zabaldu du. Irakaskuntza ofiziala eta doanekoa da. Interesatuak HHiko zentrura (Barrenkale 33, 2. pisua) jo dezakete matrikula egin edo argibideak eskatzeko, goizeko 9etatik ordu batera eta arratsaldeko 4etatik 8etara.



Azoka zabaldu zenetik bi urte pasa badira ere, postu guztiak ez daude beteta.

Oxirondoko azoka bultzatzeko azterketa bat egingo du Udalak

Supermerkatua jartzeko aukera dagoen galdetu du IFAk

Oxirondoko azoka dinamizatze-ko asmoz, Udalak merkatuaren azterketa bat agindu dio Donostiako CKL enpresari. Bedelkar Bergarako dendarien elkarteak azoka bultzatzeko beharra planteatu zion Udalari eta, era berean, IFA supermerkatu kateak kontsulta bat egin zion Udalari, egun, baseritarrek hartzen duten sotoan supermerkatu bat jarri ahal izateko. Bi arrazoi horiengatik Gobernu Batzordeak azterketa egiteko konpromezua hartu du.

CKL aste honetan bertan hastekoa zen aipatutako azterketa egiten eta bi hilabete barru azterketaren lehen ondorio eta emaitzak jasotzea espero da. Azterketaren helburua superfizie haundiekin konpetitu ahal izateko urratsak markatzea,

jarduerak dinamizatzea eta postu berriak jartzeko irizpideak zehaztea izango litzateke. Horrekin batera merkatua haunditzeko dauden aukerak ere aztertuko dira. Gaur egun zortzi postu daude Oxirondoko azokan eta beste postu batzuk erakartzeko pausuak eman nahi dira.

IFA kateak azokan supermerkatu bat jartzeko aukera planteatu zion Udalari eta CKL enpresak hori nola bideratu daitekeen aztertuko du. Behin baino gehiagotan CKL enpresak antzerako azterketak egin ditu eta Donostiako La Brecha edo San Martineko azoketan jarraitu beharreko irizpideak zehaztu ditu. Oxirondoko azokako azterketa egiteagatik Udalak 1.865.000 pezeta ordainduko dizkio CKLri.



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Egini egiten zion boikota bertan behera laga du Udalak

1993ko abendutik ez zion informaziorik pasatzen

Udaleko Gobernu Batzordeak 1993ko abendutik Egin egunkariaren kontra mantentzen zuen boikota bertan behera lagatzea erabaki du. Joseba Goikoetxea ertzaina eta EAJko alderdikidearen hilketaren ondorioz, Gobernu Batzordeak Egin egunkaria ez erostea, Eginen Udal publizitaterik ez egitea eta, era berean, inolako informaziorik ez ematea erabaki zuen.

Boikotaren hirugarren urtea bete baino lehen, Udalak boikota kentzea erabaki zuen irailaren hasieran. Beraz, joan den asteko astelehenetik Udaletxean Egin egunkaria erosten da, Udalaren publizitatea sartzen da eta Eginen Bergarako berriemakalariak Udaleko informazioa jasotzen du, 1993ko abendua baino lehen gertatzen zen bezala.



Eginen kontrako boikotarekin amaitzea erabaki du Udaleko Gobernu Batzordeak. ARTXIBOA.

Xipizaro ludoteka

Xipizaro ludotekak irailaren 17tik aurrera ekingo dio aurtengo ikasturteari. Interesatuak Seminarioko lokalean egin dezakete matrikula, 17:15etatik 19:30etara bitartean.

Udal Euskaltegia

Udal Euskaltegian 1996/97 ikasturterako matrikulaldia irekita izango da irailaren 18ra arte. Euskalduntze, alfabetatze eta Egako klaseak emango dira. Era berean, Udal Euskaltegiak bekatze sistema eta dirulaguntzak dituela jakin arazi du. Argibideak 76 44 53 telefono zenbakian.

Salaketa

Udal Gobernu Batzordeak azken egun hauetan izan diren "bandalismo ekintzak" publikoki salatzea erabaki zuen astelehenean. Osintxuko hilerrian, Lazpiur enpresan, Sanantonabateko baserrien buzoietan, hainbat ibilgailuren kristaletan eta San Martin ikastetxean, Kultur Etxean eta Irizar Jauregian egindako kalteak salatu ditu Gobernu Batzordeak. Astelehen goizean Udaletxean, Arruriagan eta Banco Guipuzcoanon azaldutako pintadak ere salatu zituen Gobernu Batzordeak.

LAN AUKERA

Bideo-makina jokuen munduko enpresak **TEKNIKO-ELEKTRONIKOA KONTRATATU NAHI DU.**
Beharrezkoa da kotxea edukitzea.
Ez da beharrezkoa soldadutza eginda izatea.
Interesa duzuenok bidali kurrikuluma 74 postakutxatilara.

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...
Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Zilarrezko piszinak


Igerileku estaliak 25 urte

1971ko San Inazio egunean, uztailaren 31n, zabaldu ziren lehen aldiz igerileku estaliko atea. Bergarako Kultur Ekintzak bultzatuta eraiki zen igerilekua probintziako lehenengoa izan zen. Bi urte geroago zabaldu ziren estali barekoak; Gipuzkoan 50 metroko bigarrena. Estalia ireki zenean inguruko herrietako igerizaleak etortzen ziren; 25 urte pasa eta gero herritarrentzat ere txiki geratu da.

Igerilekuak irekitzeaz batera lanean hasi ziren lagunetatik bik jarraitzen dute bertan: Klarita Laspiurrek eta Begoña Urbinak. Lau hilabetera monitore hasi zen Jesus Jauregik ere jarraitzen du igerian erakusten.

71ko San Inazio eguna

Estreinuko egunak ez zuen inauguraziorik eta ekitaldi berezirik izan. Klarita Laspiur ondo gogoratzen da lehenengo egunarekin. "Lehenengo eguna ez zen berezia izan, ez zen ospakizunik



eta izan. Ireki eta jendea sartzen hasi zen, beste barik; guretzat lan egun normala izan zen. Izugarritzko jende iladak egon ziren, hura zen jendea! Inguruan ez zegoen beste igerilekurik eta kanpotik jende asko etorri zen, nobedadea zen eta; euren herrietan ireki bitartean Eibartik, Arrasatetik, Aretxabaletatik... jende asko etortzen zen igerira".

Aldaketak

"Leben emakumezkoen aldagelak goian zeuden, gizakumeenak, berriz, goian. Taberna dagoen tokian, berriz, ez orain bezain handia, baina gimnasioa zegoen". Sasoi hartan Klaritak eta Begoñak aldageletan lan egiten zuten. "Sarrran atezainak egoten ziren, baina jubilatuenak zirenez, eta lanik egin ezin

zutenez, geu hasi ginen sarrerako lana egiten. Gero garbitasunean ere bai".

Ordutegiari dagokionez, igerilekuan izan dira aldaketak. "Hasieran domeka arratsaldeetan itxi egiten zen; beste garai batean ordubata eta erdietatik hiruretara itxita egoten zen; atea hamaitketan ere ireki izan dira..." 1989 arte txartelak egin eta gestio guztia ige-

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorra, agendak...

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTZO
ILEAPAINDEGIA

rilekuetan bertan eraman zen, orduz geroztik, berriz, udalean egiten da.

Igerilari leialak

Arantxa Jauregi izan zen Jesus Jauregiren lehen taldeko ikasleetarietako bat. "Hondartzan igerian egitea asko gustatzen zitzaidan, oso ausarta nintzen, baina ez nekien igerian. Igerilekuak ireki zituztenean monitoreaekin hasi nintzen. 27 urte nituen. Hasieran nabi nuelako joaten nintzen; gero medikuaren aginduz. 25 urte hauetan, normalean, egunero joan izan naiz; jai egunetan ere bai".

Katarroa edo belarriko minez ibiltzea ez dira ez joateko oztopo izan. "Katarro antzarekin, sudurretik ura dariola, nagoenean ere ez diot joateari lagatzen. Belarriko minez ibiltzen nintzen lehen, baina orain optikan neurrira egindako tapoiekin primeran nabil. Niretzat droga bat da: gorputza beste era batera dudala, erlajatuta ateratzen naiz; osasunak eskertu egiten dit, eta joaten ez naizenean ezagun izaten dut".

Top lessean igerian

Arantxari Mark Spitz deitzen diote, "baina ez azkar ibiltzeagatik, uretan denbora askoan egoten naizelako baizik. Ni

Orain dela 25 urte

Igerileku estaliak 1971ko uztailaren 31n zabaldu ziren, Luis Laskurain alkate zen garaian. Bultzatzaile Bergarako Kultur Ekintza izan zen, Jose Antonio Zabala buru zela; Jose Mari Sañudo arduratu zen, beste zenbaitekin batera, zortzi milioiko aurrekontua esku artean zuela, igerilekuak egiteko lanak aurrera atera zitezten, bateko eta besteko igerilekuak ikusiz, lurren errosketei buruzko elkarrizketetan, eta beste hainbat zereginetan.

Juan Idigoras Kultur Ekintzako partaidea-ren arabera igerilekuak eraikitzeke izan ziren

igerira joaten naiz, eta ez kontuak esatera edo eguzkia bartzera. Ordu-


betean ibiltzen naiz, eta 2.000-2.250 metro egiten ditut". Mende laurden

zalantzak eta kezkak. "Hasieran orain San Martin eskola dagoen tokian egitea pentsatu zen, leku eguzkitsuagoa zelakoan; azkenean orain duen kokalekua hartu zuen".

Jabetza pribatua ala publikoa izatea ere planteatu zen. "Lehen jendea errekan bainatzen zen, baina ehun lantegien kutsadura zela medio igerilekuak egiteko beharra ikusi zen. Jabetza ehun lantegien esku gertatu zen planteatu bazen ere, udalak hartu zuen bere gain".

Juan Idigoras igerilekuen 25 urteko historia honela laburtu digu: "ze asmorekin egin zen kontutan hartuta, ondo baino hobeto bete du eginkizuna, lastima gaur egun txikitxo gertatu dela".

honetan Arantxak bainujantzi modetan ez du moda aldaketa gehiegirik so-



Igerileku estalietan, pizkina txikiak eta haundiak uraren tratamendu berbera dute, horregatik ez dute betetzen Osakidetza osasun alorreko arautegia.

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pzta. artean).

Okela eta arraina parrilan (enkarguz).

Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3

☎ 76 16 14

Ibargarai, 8

☎ 76 54 73

MUJIKA

Jantzidenda


Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

matu, baina gustora egingo luke top lessa. *"Bainujantziak, alboetan, saibets inguruan, rozatu eta gorri-gorri, minberatuta lagatzen dit. Jendea goiko barik ibiliko balitz ni ere ibiliko nintzateke, baina ez naiz lehenengoa izango."*

Txiki geratu da

Juan Idigoras, igerilekuaren bultzatzaileetako bat, jubilatuta denetik egunero joaten da. *"Neguan egunero joaten naiz. Goizeko zortzietan irekitzeko zain egoten naiz, beranduagorako lagaz gero joateke geratzen naiz eta"*.

Estali barekoetara gutxitxoago joaten da, asko-



Euskadiko igeri txapelketa ugari jokatu dira Bergarako piszinetan.

tan uraren temperatura baxua iruditzen zaiolako.

Juanek dioenez makinetan eta izan dira aldake-

tak, baina, osterantzean, itxuraz behintzat, ez da aldaketarik izan. Bere ustez, igerilekuen alderdirik onena eman duen eta ematen duen zerbitzua da. *"Antzuola, Elgeta eta Bergarakoei kirola egiteko aukera eskeintzeaz gain, osasunez ondo ibiltzen ere laguntzen du. Lastima da txikitxo geratu dela: eskola umeak edo igerian ikasten dihardutenak badabiltzat bost kaleetako batzuk eurentzat izaten dira, eta besteentzat leku gutxi geratzen da; kale bakoitzean hiruzpalau lagun ibiltzen dira"*.

Josune Linazisorok argitu digunez konponbidea obrak egitea izan daiteke, eta udala ari da gaia aztertzen.



Gipuzkoan zabaldu ziren lehen igerileku estaliak. Handik gutxira kanpokoak zabaldu ziren.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

DENA
100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta, 3

Masterreka 24
Nepal, India eta Hego
Amerikako jantziak
Masterreka, 24 BERGARA

Igerilekuak gaur

- Elgerileku estaliaren neurriak honako hauek dira:
Haundiak: 25 metro X 10,5 metro. Bolumena: 367 m³
Txikiak: 10,5 metro X 6 metro. Bolumena: 40 m³
- Kanpoko piszinetakoak, ostera, beste hauek:
Haundiak: 50 metro X 21 metro. Bolumena: 1.857 m³
Txikiak: 25 metro X 10,10 metro. Bolumena: 134,13 m³
- Gaur egun, batanaz beste, 450 bat lagun ibiltzen dira egunero. Neguan 150-200 igerilari, udan kopurua nabarmen igotzen da, 750era. Udan eguraldiak agintzen du, eta egun eguzkitsua irten

ala ez, jende kopurua aldatu egiten da. Aurtengo udan egunik jendetsuena uztailearen 16a izan da: 1.656 lagun izan ziren.

- Igerilekuak igerian egiteko aukeraz gain, masaia edo sauna hartzeko eta gimnasioan ibiltzeko aukera eskaintzen du.
- Langile hauek lan egiten dute: mantenimenduko arduraduna, monitorea, garbitzailea, sarrerako lau lagun, sokorristak eta udaletxean lanean dihardutenak.
- Estalia klimatizatua da, eta normalean 26 gradutan egoten da.
- Igerilekuek bi arrazoirengatik ez dute Osakidetzaren osasunketa alorreko arautegia betetzen: batetik, estali barekoan aldagarik ez dagoelako; eta, bestetik, barrukoetan txikiak zein haundiak uraren tratamendu sistema berbera dutelako.



Astlehenean igerileku estalien 25. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatatu ziren.

SIRIMIRI

jatetxea

PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

FERNANDEZ



Oihal puskak
Oihalak

San Antonio, 3
☎ 76 22 93

Ibargarai, 2
☎ 76 53 22

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91

SAN MARTIN JAIAK

FERIXA ETA INGURUKO AKTIBITATEAK

- Txekorra burduntzian erreta • Dantza suelta • Bertsolariak •
- Sokamuturra • Pintoreak • Bi danborradak • Suzko erroberak •
- Pilota, xakea, krossa, eskubaloia, txirringarritza •
- Abesti eta dantzaz osatutako ikuskizuna •



Zuk aukeratu. Eta ongi pasa!!

BERGARAKO UDALEAN

- | | | | |
|------------------------|------------|---------------------|------------|
| • UDALETXEA: | ☎ 77 91 00 | • UDAL EUSKALTEGIA: | ☎ 76 44 53 |
| • KULTURA ETXEA: | ☎ 77 91 58 | • IGERILEKUA: | ☎ 76 20 51 |
| • MIZPIRUALDE EGOITZA: | ☎ 76 13 68 | • POLIKIROLDEGIA: | ☎ 76 56 41 |

ZURE ZERBITZURA GAITUZU

Bertso Jaialdia

Andoni Egaña

IRAILAK 14, ZAPATUA
GAUEKO 10:30etan
MARIAREN LAGUNDIAN

Iñaki Murua

Angel M. Peñagarikano

Ainhoa Agirreazaldegia

Jesus Mari Irazu

Gai jartzailea: Joserra Gartzia

SARRERAK

JARDUN, KORTAZAR


ETA ETXEPAREN

SALGAI

Aldez aurretik: 700 pzta.

Takilan: 800 pzta.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala - Gipuzkoako Foru Aldundia

San Martinen estanpak

Musika ikuskizuna martiriaren 400. urteurrenerako

San Martinen martiriaren 400. urteurrena betekoa da hurrengo otsailaren 5ean eta Udala hasi da dagoeneko horren inguruko ekitaldiak prestatzen.

Udaleko Kultur Zerbitzua otsailaren 1ean eta 2an Frontoian izango den San Martin irudien ikuskizuna egiteko lanean hasi da. Joan zen astean lehen bilera egin zen Kultur Etxean eta herriko kultur talde guztiei (musika taldeak, dantzariak, antzerkilariak e.a. luze bat) bertan parte hartzeko gonbidapena luzatuko zaie datozen egunetan.



Miserableak edota San Martzial muntaien antzeko ikuskizuna prestatu nahi da.

Miguel Gonzalez Bastidaren lana

Miguel Gonzalez Bastidak konposatutako lana antzezten 300 bat lagun izango dira Frontoian. Alfredo Gonzalez Chirlaque, Miguelen semea, izango da lanaren musikaz arduratuko dena eta Valeñ Moñuxek, berriz, eszenografiaren ardura izango du. Bikote honek hainbat lan konposatu du elkarrekin eta "Miserableak" ikuskizun arrakastuaren egokitzapena ere beraiek egin zuten.

Alfredo Gonzalez Chirlaque Udala Musika Banda eta Musika Eskolako Or-

kestako zuzendariak aipatzen duenez, *"San Martineko estanpetan oinarrituriko lana izango da. Bertan San Martin jaietako ekitaldi nagusienak antzeztuko dira, San Martin bezpera eta San Martin egunari errepasso bat emanez: sokamuturra, meza, su artifizialak eta horrelakoak. Era berean, aurten San Martinen martiriaren 400 urte betetzen direnez, San Martini eskeinitako zati bat egingo da. Horretarako abeslariak eta antzezlariak behar izango ditugu, abesutako zatietz gain, antzeztutako*

zatiek eta dantzek ere garrantzi handia daukatelako lan honetan".

Orain zortzi bat urte antzerako lan bat egin zen, Frontoian bertan, San Martzialgo irudiekin.

Batzen den dirua Musika Eskolarako

Esan bezala, San Martin irudien ikuskizunaren bi emanaldi egingo dira Frontoian, otsailaren 1ean eta 2an hain zuzen. Aurretik, urtarrilaren 30ean, entsaiu orokorra aprobeztatuz, herriko ikasleek aipatutako lana ikusteko aukera izango dute. Lehen kalkuluen arabera, lan honek 2 milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta takilan jasotzen den dirua Musika Eskolan egin beharreko berritze

lanak ordaindu ahal izateko bideratuko da.

Musika Eskolan, negurako galdara berri bat jartzeaz gain, beste hainbat berritze lan egingo dira datozen hilabeteotan. Gaur egun Mariaren Lagundiko konbentuan dagoen galdara erabiltzen du Musika Eskolak eta monjek bi edificioak erabat bereiztu nahi ditu. Horretarako galdara berri bat jarriko da Musika Eskolan eta hori egin ahal izateko lehen solairua eta komunak erabat berriztu beharko dira. Lan horiek 9 milioi inguruko aurrekontua daukate, oraindik lanak adjudikatu ez diren arren. Musika Eskolak lanekin berehala hasteko asmoa dauka eta baliteke hil honen amaieran lanei ekitela.

300 bat lagun, musikari, dantzari eta aktore, otsailean eskainiko den muntaian



EGUAKITZA, 13

22:30: Dantza Sueltoiko XII. Txapelketa, Moises Azpiazuren oroimenez, Udal Pilotalekuan. Ekitaldi artean, Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirri omenaldia eskainiko zaie.

ZAPATUA, 14

09:30: Barazki, fruitu, lora eta gazten lehiaketa, San Martin plazan.

10:00: "IV. Bergara Hiria" Xake Txapelketa Irekia Udal Pilotalekuan. Goizeko 10etan hasi eta gaueko 9ak arte, lau txanda jokatuko dira.



12:00: "Merkatu Miresgarria" Oihulari Klown antzerki taldeak antzeztutako lana, San Martin plazan.

12:00: Antzinako abankargazko armekin plater tiraketa. VI. San Martin Txapelketa, Gorka kantina inguruan.

12:30: Bergarako odolkien dastaketa, Bedelkarrek antolatuta. Bedelkarreko harakinek emandako odolkiak dastatu ahal izango dira.

17:00: VII. San Martin Herri Krossa herriko kaleetan zehar.

18:00: Herri kirolak Seminarioko patioan.

20:00: Txekor-jana. Egunean zehar txekorra burduntzian erreko da Seminarioko patioan, Bedelkarren laguntzaz eta ardo eta garagardo dastaketa izango da.

Era berean, Montetarrak, Azkoitiko dultzainero eta trikitalariek, musikaz alaituko dituzte kaleak egunean zehar. Txekor janerako txartelak 1.700 pezetaren truke harategietan izango dira salgai.

22:30: Bertso jaialdia, Jardun Elkarteak antolatuta, Mariaren Lagundian. Ainhoa Agirreazaldegia, Andoni Egaña, Jesus Mari Irazu, Iñaki Murua eta Angel Mari Peñagarikano arituko dira bertsoan. Gai jartzaile, berriz, Joserra Gartzia izango da.



00:30: Bergarako taldeek girotutako Mexikar Festa, Bedelkarren laguntzaz. Bedelkarrek, dendarien elkarteak, sari bat emango dio mexikar jantzitako talderik onenari.

IGANDEA, 15

08:30: Sokamuturra, herriko kaleetan zehar.


09:00: XXIII. Pintura Lehiaketaren hasiera Kultur Etxean, Beartek antolatuta. Lehiaketara aurkeztutako koadroak Kultur Etxeko erakusketa aretoan jarriko dira ikusgai.



10:00: "IV. Bergara Hiria" Xake Txapelketa Irekia Udal Pilotalekuan. Goizeko 10etatik, arratsaldeko 6:30ak arte hiru txanda jokatuko dira. Arratsaldeko 7etan amaiera ekitaldia eta sari banaketa egingo da.

19:00: Buruhaundi, kiliki eta erraldoien kalejira, Udal Txistulari Bandak, Kobok Dultzaineroek eta Kukumako hankapaluek lagunduta.

22:30: Danborradaren irteera, Udal Musika Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Ibargarai, Fraiskozuri, Irizar, Barrenkale,



GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnok: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETAKO. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



12:30: Udal Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan.

Egitaraua:

- GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOAREN HIMNOA.
- A. Glez. Chirlaque.
- LA BELLE HELENE.
- Obertura. J. Offenbach.
- HIGHLIGHTS FROM HOOK.
- Soinu-banda.
- J. Williams.
- SAN MARTIN.
- Euskal irudiak.
- M. Gonzalez Bastida.
- Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

17:00: Pilota partiduak, frontoian.

19:00: Emakumeen eskubalo partidua Kiroldegian Bergara Kiroel Elkarteak antolatuta. Ohorezko

mailan jokatzeko Bidebieta eta Hernani taldeak aurrez aurre.

19:30: Haurren danborrada, Musika Eskolako Bandak lagunduta.

22:00: Suzko erroberak San Martin ikastetxeko patioan.

23:00: Dantzaldia, Gaubela taldearekin San Martin plazan.

EGUAZTENA, 18

18:00: "Xakea, kultura eta kirola" gaiari buruzko mahaingurua Kultur Etxean. Parte hartuko dutenak: Felix Izeta, M. Sebastian, Y. Esturo, Miguel Angel

Muela, M. Zubia eta Diputazioko eta Udaleko kirol teknikariak.

19:00: Bergarako eskolarteko xake txapelketa, zaletu



EGUENA, 19

17:00: Xakeko aldebereko jokaldiak, San Martin plazan Martin Arriaran eta Andres Diezen eskutik.

guztientzat irekia, Bergarako Xake Taldearen egoitzan, Zabalotegin.

AGUAKITZA, 20

18:00: 10 orduko xake azkarreko maratona, zaletu guztientzat irekia, Bergarako Xake Taldearen egoitzan.

ZAPATUA, 21

12:00: Irrati-kontaktoen lehiaketa, 24 orduz, igandeko eguerdiko 12ak arte, Surra Irratizaleen Elkarteak antolatuta.

22:30: Aritzeta abesbatzak eta Xamatx dantza taldeak elkarrekin prestatutako ikuskizunaren emanaldia, Udal Pilotalekuan.

Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga, Barrenkale eta San Martin plaza.

00:30: Lisker taldeak animatutako dantzaldia San Martin plazan.

ASTELEHENA, 16

08:00: Diana, Udal Txistulari Bandarekin, herriko kaleetatik zehar.

08:30: Sokamuturra herriko kaleetan.

11:00: Meza nagusia, San Pedro elizan. Udal korporazioa joango da, Udal Musika Bandak eta Txistulari Bandak lagunduta.

12:00: Udal Musika Bandaren kalejira.



Deco-Textil
ZANGITU
 Etxerako lantzeria
 Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, etab.
 Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

A mets

 • HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
 • Zango erremolkeak
 • Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak
 Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI

1.900 pzta. hilean panderoa
2.650 pzta. hilean soinua

Matrikula egiteko epea: irailak 25

Izen-ematea: Jardun (76 08 19 - 76 36 61)

Kurtso hasiera: Urriak 2
Kurtso amaiera: Ekainak 14

TRIKITI ESKOLA

Soinua eta
panderoa



Euskaldunak
izan nahi
dugulako
EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!!

EUSKARA IKASTAROAK
Maila guztiak, EGA eta ALFABETATZE
Gurasoentzat klase bereziak

Matrikula epea:
IRAILAren 27ra arte

Informazioa eta matrikula:
AKULU-AEK EUSKALTEGIA
Masterreka, 13 behea
Tfnoa: 76 05 18



Osasuna

Alkohola eta dieta

- Jende askok dieta egiteari ekiten dio baina ez du alkohola alde batera uzten...

- Horrela da, bai. Ura ezezik, edari alkoholdu-nen kontsumoa zeharo finkatuta dago gure kultur-an. Horregatik nekeza izaten da dieta bat egiten hasterakoan alkohola alde batera uztea. Alkohola dituen ezaugarriak ezagutzea beti primeran etorriko zaigu.

- Zeintzuk dira ezaugarri horiek?

- Alkoholak elikagai ezaugarriak dauzka, energia ematen baitu, 7 kilokaloria gramoko, horregatik dieta bat jarraitzen hastea eta gero mozortzea alperrikakoa da. Droga ezaugarriak ere badauzka, dependentzia gogorra sortzen baitu.

- Zein litzateke alkoholaren eragina?

- Alkoholaren eragina adierazteko bi kontsumo mota desberdinu behar dira: lehenbizi neurritzko kontsumoa legoke, hau da, dietak ematen digun energiaren %10a baino gutxiago alkohol moduan edan, gutxi gorabehera bi

baso ardokada (12^o) ahal bada bi bazkaritan banatuta. Kontsumo hau orokorrean (salbuespenak egin daitezke) gomendagarria izan daiteke, zeren gosea eragiten du, liseriketa edo dijestioa erretzen du, burdina asimilatzeko laguntzen du, kolesterol mailak egoki mantentzen laguntzen du... Gainera ardoa bezalako



BITTOR RODRIGUEZ
(Dietista)

edariak gizarte mailako funtzio bat dauka, lagunarteko bazkaria ez baita berdina ardoarekin edo ardorik gabe. Eta beste kontsumo mota gehiegizko kontsumoa lizateke.

- Zeintzuk dira horren ondorioak?

"Alkoholarekin bi kontsumo mota bereizten dira: neurritzkoa eta gehiegizkoa, arriskutsua dena"



Dieta bat hasterakoan nekeza da alkohola alde batera uztea.

- Gehiegizko kontsumoak gosea kentzen du, elikagaiak ez dira behar bezala aprobetxatzen liseriketa galeratzen baitu (horregatik alkoholiko kronikoak argal geratzen dira), goragalea ematen du, sabela irratitzen du ultzerazioa erretuz, beharokoa eman dezake... eta gainera luzera adikzioa sortzen du, kroniko bihurtzeko arriskuarekin.

- Nola jakin alkoholiko bat kronikoa den?

- Itxura argala izaten dute alkoholiko kronikoen, lipidoen akumulazio selektiboa (gizonetan sa-belean, horregatik alkoholiko argal eta tripontziak ikus daitezke) ematen da, zirrosia ere bai eta koordinazio falta ere nabaria da (nerbio sistemari egindako kalteagatik). Kontsumo mota honen arriskua zera da: hasieran mozkor barregarri bat zena astebukaeratako mozkorra bihurtzen dela. Hau da mozkorra kulturalki finkatzen ari da, batez ere gaztetan kronizismo arriskua haundituz. Gainera gaur egun alkohol "txarragoa" edaten da, destilatua kasu.

Nire aholkua zera litzateke: bazkari-afariarekin baso bat ardo edaten duenari ez dadila arduratu eta astebukaera guztietan mozkortzen denari, berriz, kontu haundiz ibiltzeko esango nioke.



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura


Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



LIZAR
ALTZARIAK

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

Bergaran nahikoa kirol instalazio dagoela uste duzu? Zer moduz daude?




Alex Bernal

Nik ez dut kirol askorik egiten baina uste dut baietz. Tenis pistak ere badaude... Baina pista horiek egoera hobean egon beharko lirateke.



Asun Santamaria

Beharbada futbola, gimnasia eta beste hainbatetarako instalazio gehiago beharko lirateke. Nik bakarrik igerilekuak erabiltzen ditut eta oso ondo daude.



Aitor Gallastegi

Nik baietz uste dut. Ni aspaldian ez naiz joan baina pentsatzen dut dauden kirol instalazioak ondo egongo direla.



Eugenio Alles

Beste kiroldegi bat beharrezkoa dela uste dut, Labegaraietakoa txikiegia geratu da. Barruko igerilekua ere zaharra geratu da eta berritzu beharra dago.



Victoria Marcos

Ni igerilekuetara bakarrik joaten naiz, beste guztiak ez ditut ezagutzen. Igerilekua behintzat ondo dagoela pentsatzen dut.



Monica Colinas

Niretako Kiroldegia Agorrosinen egon beharko litzateke, instalazio guztiak kontzentratuta egoteko. Beste guztia ondo dagoela uste dut.



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Artekale, 22 BERGARA ☎ 76 16 63

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R. S. I. 209374 - SS

BERGARA



Telebista aurrean...

Jakina da, telebistan interesgarria den zerbait aurkitzea oso zaila suertatzen dela gaur egun.

Telebista piztu bezain laister, dagoen programa barietatea oso mugatua denez, zappinari ekiten diogu. Kate guztiek antzeko den zerbait eskaintzen digute.

Egunero, berrehun aldiz ikusiak ditugun telesailak errepikatzen dituzte. Horien ostean, seguraski, ordu edo ordu t'erdia irauten duen reality show horietako bat eskeintzen digute, asteko gertakizun bitxiak ezagutarazteko. Gero, pertsonaia famatuen erosketak eta oporrak nola joan diren jakiteko aukera ere izaten dugu. Hauen guztien tarteetan, iragarkiak eta tele-dendak buruz ikasteko aukera ere ez zaigu faltatzen.

Hau guztia gutxi balitz, horrenbeste milioi mugitzen dituen futbola ia egunero eta aspertu artean ikusi ahal izango dugu. Partiduez gain, golak eta futbolari buruzko saio bereziak ere hor izango dira, noski. Kateen arteko kompetentzia horren handia izanik, originaltasuna alde batera uzten da interes ekonomikoari jarraituz.

Eta tamalgarria den arren, kate hauek bultzatzen dituzten zentzugabeko programek audientzia izugarriak lortzen dituzte. Gehiengoari bost axola zaio zer ari den jasotzen, dagoena ikusten du eta kitto.

Kontua da, telebista pizten dugun une horretan hobeto pentsatu beharko genukeela, ikustea zer komeni zaigun eta zer ez, zer den benetan interesatzen zaiguna.

Elena FERNANDEZ



Intolerantzia alardea

San Martin bezperako danborradaren atarian, Irun eta Hondarribiko alardeetan gertatutakoa ezin dut burutik kendu. Gaur egun, emakumeei lekua utzi eta eurekin dagoena konpartitu beharra dagokigu gizonoi (eta nere partetik behintzat gustora asko gainera) gizarteko arlo askotan oraindik dirauten desberdintasunak ezabatuz. Eta pausu hori naturaltasunez eman behar da, ez bi herri hauetan gertatu den bezala; soldadu eta "mandoak" (izen egokia agian) alardean parte hartu nahi zuten emakumeei eskopetekin joka (ezkerrak ez zirela hasi tiroka).

Ohitura eta tradizioa aipatzen dituzte emakumea alardetik aparte nahi dutenek. Egia da 1638. urtean tropa frantsesek Hondarribia inguratuta zutelarik (orain bezala lehen ere Estatu inperialisten zapalkuntza Euskal Herriaren aurka), eskopetak hartu zituztenen artean ez zela agian emakumerik. Baina ezta umerik ere, eta alardean parte hartzen dute. Ez zen orduan soziedadean behin eta berriz afaltzearen poderioz metroko diametroa eta ehun kilotik gora dituen gizon potolorik izango, eta hauek ere parte hartzen dute alardean eta gainera emakumeak jaietako ekitaldi horretatik kanpo nahi dituzte batzuk. Tradizioa errepititzekotan gazte indartsuak soilik izan beharko lirateke alardean. Hobe tradizioa utzi eta denok batera ondo pasau.

Hamar urte barru (lehenago izan dedila nahiko nukeen arren), alardea mixtoa izango da, armonia oso batera egingo dute kalejira guztiek eta oraingoa ahaztuta egongo da. Gehienek barre egingo dute igandeko jokaeretz, baina batzuk, oraindik ez dute onartuko. Galtzeko arriskuan dagoen espezie hau ia behingoz eta betiko desagertzen den gizarte berri bat sortzeko.

Begarako danborradan arazo gehiegirik gabe aritzen dira emakumeak danborra jotzen. Baina noizko kantinero abandera-tuak? Mutilak noski, praka motz eta tirantedun nikiarekin.

Jon ALTUNA "OXAN"

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23



ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasterterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. ☎ (943) 71 41 57. ESKORIATZA.

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tfnoa: 76 27 93

■ **Euskal derbya**

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Matxiategiko lagun kuadrila honek euskal derbyaren beste edizio bat jokatu zuen larunbatean

Ipintza institutuan.

Futbolaren inguruan eztabaida dexente izaten dituzte kuadrilan, **Reala eta**

Athleticen jarraitzaile

kopurua berdintsua baita.

Batzuek besteei isildu eragiteko modu bakarrak euren bihotzeko ekipoen

azken sailkapena eta urteroko futbito partidua izaten da. Aurten ere errealezaleak izan dira nagusi, 13 eta 3ko emaitzarekin. Beraz, poteoa eta ondorengo afaria atletizaleek ordaindu behar izan zituzten. Afaria Ligan atzetik geratzen den ekipoaren jarraitzaileen kontura izaten da. Dena den, Luis Fernandezek eta Iruretak badakite nora jo errefuertzo bila...



■ **Orio, Orio, Orio!!**

Bergarako lagun kuadrila honek, urtero bezala, estropadak ikustera joateko irteera egin zuen domeka goizean. Orain dela lau urtetik hona goizean goiz **Bergaratik** atera eta **Oriora** kotxetan abiatzen dira, handik **Igeldoraino** oinezko ibilaldia egiten dutelarik. Igandean ere Igeldon estropadak ikusi eta Orio animatu ondoren (guztiak Orioko kamiseta horiekin ikus ditzakezue), Igeldon bertan bazkaldu eta arratsaldean bainua

hartu zuten **Ondarretako hondartzan**. Aurten, Orioren garaipenaren ondoren, sekula baino poziago itzuliko ziren... Kotxeak hartzeko, Oriora itzultitakoan, izan zuten bai Orioren garaipena disfrutatzeke aukera. Ea datorren urtean eusten dioten...

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza

**MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK**

**Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48**

■ Antxintxikan euskara ikasten

Mariaren Lagundia eta San Martin de Agirre ikastetxetako 23 ikaslek hartu dute parte aurten **Jardun Elkarreak** antolatutako "Antxintxika" programan. Programa honek 8. maila amaitu berri duten ikasleen euskara maila hobetzeko helburua dauka, B eredutik D eredura pasatzeko aukera izan dezaten. Horretarako bi astez

jarduera ezberdinak izan dituzte ikasleek. Aurreko astean Garaion izan ziren eta aste honetan, berriz, goizez klaseak izan dituzte Udal Euskaltegian eta arratsaldez aktibitate libreak. Ikasleekin batera

Aitziber



Aretxaga, Edu Orgaz eta **Olatz Olasso** begiraleak aritu dira. Argazkian ikus daitekeenez, guztiek primeran pasa dute.

■ Xamatzekoak Gorlizen

Igandean **Xamatx dantza taldeak Gorlizen** izandako **Euskal Jaian** hartu zuen parte. Bertan Euskal Herriko 11 dantza talde bildu ziren. Xamatzek Berriotxoaren dantza eskaini zuen ikusleen gozamenerako. Bestalde, dantza sueltoan ere bikain aritu ziren Xamatzekoak. Arratsaldean antolatutako txapelketan **Olatz Gabilondo** eta **Zigor Ruiz de Egin**o Xamatzeko bikotea izan zen irabazlea. Sari gisa, dantzari figura bat, kamiseta bat eta Euskal Jaietako kartel bana eskuratu zuten. Javi Vicenteren argazkian, txapeldunak.



Zertan dihardute ba?



Nartxi Azkargorta eta Mikel Laskurainek Tarregako (Lleida) Antzerki Ferian parte hartu dute.

Taun-Tauneko kide izandako Nartxi Azkargortak "Re9n" muntaia aurkeztu zuen eta Mikel Laskurainen Hika taldeak, berriz, Atxagaren lanean oinarritutako "Henry Bengoa inventarium". Tarregako ferian Estatu osoko talde ugari bildu ziren eta, besteak beste, kale antzerkia, txotxongiloak, dantza ikuskizunak ikusteko aukera izan zuten ikusle eta programatzaileek. Nartxi lan berri bat lantzen ari da Bartzelonan eta Mikel "Goenkale"ko atal berrietan agertuko da.

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Luis Larrañaga "Kikio"

Luis Larrañaga "Kikio" (63 urte) aski ezaguna da Bergaran. Herriko taberna eta txoko guztiak alaitzeaz gain, San Martinetako danborradan ere ez du hutsik egiten. Igande gauean lapitz haundi batekin *maitre* jantzita ikusi ahal izango dugu herriko kaleetan.



"San Martinak Pazkuak baino gehiago gustatzen zaizkit, Pazkuetan kanpoko jende gehiegi egoten delako. Beldurra sugeei diet. Laister, txirula belarrietatik jotzen hasiko naiz..."

- Noiz hasten zarete tanborrada entsaiatzen?

- Guk ez dugu entsaiarik behar; danborreroek bai.

- *Maitre* jantzita bai, baina sukaldari ona zara?

- Ez.

- Non afalduko duzu domekan?

- Pertxan, lagunekin.

- Janari eta edari gustokoenak?

- Kokotxak eta oilagorra eta Viña Ardanza ardoa.

- Egunero zenbat ordu Pertxan?

- Lau bat.

- Jaiak egunez ala gauez?

- Egunez, gauez ganberro asko...

- Non egin duzu juergarik haundiena?

- Lehen Laudioko jaietan ederrak botatzen genituen...

- Jaietako gauzarik onena?

- Danborrada eta Bandaren kontzertua (eta hori ez naizela joaten).

- Zapatuan txekorra burduntzian probatzeko asmorik?

- Igual bai.

- Sokamuturrera joaten zara?

- Ez.

- Eta Meza Nagusira astelehenean?

- Ezta.

- San Martinak ala Pazkuak?

- San Martinak, Pazkuetan kanpoko jende gehiegi... *Mucho rollo*.

- Zer behar da ondo bizi ahal izateko?

- Osasuna eta dirua.

- Eta zeuk badauzkazu?

- Orain arte bai...

- Zure ametsa?

- *Primitivia* irabaztea. Zapatuan zenbaki bategatik ez nuen gordoa eramane...

- Pertsona batengan zer baloratzen duzu gehien?

- Lagun ona izatea.

- Zure bertute eta defektu bat?

- Defektua ardo gehiegi edaten dudala eta bertutea deitzen didaten leku guztietara joaten naizela.

- Zerekin egiten duzu barre?

- Gehien Cantinflasekin.

- Txirula sudurretik jotzen jarraitzen duzu?

- Bai, laister belarrietik jotzen hasiko naiz...

- Beldurra zeri?

- Sugeei.

- Bizitzeko adinik politena?

- 40 urtetik 50era.

INGELES FRANTSES ALEMANA

MATRIKULA ZABALIK!!

KURTSO HASIERA URRIAREN 1ean.

• UMEAK (6 urtetik aurrera), GAZTEAK eta HELDUAK.

• MAILA GUZTIAK.

• GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.

• IKASTARO TRINKOAK.

• AZTERKETA OFIZIALEN

PRESTAKUNTZA.

INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



MATRIKULA ZABALIK!!

ETXEBIZITZA

Garaje bat salgai Burdiñaten. ☎ 76 38 06.

Donostian (Antiguon) pisua osatzeko 2 lagun behar dira. ☎ 76 25 14.

Ganbara salgai San Pedro kalean. ☎ 76 24 05.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 43 22.

Garajea salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 47 67.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauzez).

Pisu bat konpartitu nahi dut. ☎ 76 08 00 (Ismael).

Estudioa alokatzen dut Benidormen. ☎ 76 23 43.

Etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Garaje eta ganbarekin. ☎ 76 54 66.

Bilbon pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu. ☎ 76 03 58/76 57 70.

Errioxako Benimar kanpinean modulo bat salgai. Urte amaierara arte ordainduta. ☎ 76 16 49.

Osintxun buhardilla bat salgai. ☎ 76 15 36.

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 19 29.

Pisua salgai edo alokairuan Barrenkalean. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 7630 90.

DENETARIK

Trialsineko Monty bizikleta salgai. ☎ 76 56 13.

Seat Malaga kotxea (SS-X) salgai. ☎ 76 37 09.

Eskuz egindako umearen jertsea galdu da Antzuolan. ☎ 7662 94 (Olatz).

Urrezko pultsera galdu dut. Harri urdinekin. Sarituko da. ☎ 76 55 63 (Asun).

Osintxuko kolunpioetan motxila bat ahaztu zitzaidan. ☎ 76 53 59 (Ana M.).

Haginetako aparatu bat agertu da Urrats tabernan. ☎ 76 52 92.

Antzuolan umearen urrezko pultsera galdu da. ☎ 78 71 08.

Erretzeko pipa bat galdu dut. ☎ 76 58 37.

Imar karro-denda salgai. ☎ 76 59 56 (gauzez).

Bikien kotxe-kapota salgai. ☎ 76 58 34 (Aitor).

Taberna-jatetxea alokairuan Olan. ☎ 76 37 80.

Seat 124 kotxea (SS-N) salgai. ☎ 76 40 94.

Sango denda-remolkea salgai. ☎ 76 33 92.

Ford Sierra kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

LANA

Ingeniaritza ikasleak klaseak ematen ditu. ☎ 76 11 11.

Mate eta fisika klaseak ematen ditut. ☎ 76 47 85.

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

OHO, aleman eta italiano klaseak ematen ditut. ☎ 76 12 38 (Irene).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 06 56 (Irene).

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

Aleman diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).

Emakume batek etxeko lanak egingo lituzke orduka. ☎ 76 23 41.

Etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko neska euskalduna behar da. ☎ 76 06 69.

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 13 46.

Matematika eta fisikako klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 03 72.

Emakume euskaldun batek haurrak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 21 96.

Felipe SUDUPE

Hagin klinika

*Medikuntza eta zirugian
lizentziatua.
Estomatologian espezialdua.*

558. kolegiatua.



GIPUZKOAKO ODONTO-ESTOMATOLOGOEN ELKARTEA

*Kontsultarako ordua
aurretik eskatu.*

Matxiategi 18 behea, ezkerria. ☎ 76 07 66

FRANTSES IRAKASKUNTZA

Mizpildi 3, 1. ezkerria. BERGARA.

96-97

ikasturtea

IZEN-EMATEA:

Irailaren 30era arte.



INFORMAZIO GEHIAGO:

76 30 55 telefonoan.

ORDUTEGIA:

10:00-12:00 eta 17:00-19:00





Gurasoentzako euskara klaseak

- Berrigara irakurtzea kosta egiten bazaizu...
- Umeari etxeko lanetan laguntzeko arazoak izaten badituzu...

Oraindik ere baduzu aukera!

Anima zaitetz!!

Eman izena:

*Aranzadi, San Martin edo
Mariaren Lagundia ikastetxeetan.*


Udal Euskaltegian (Zabalotegin).

☎ 76 44 53

Udaleko Euskara Zerbitzuan.

☎ 77 91 29

**Izena emateko azken
eguna: Irailaren 20a**



**KLASEEN EDUKIA, ASTEKO EGUNAK ETA ORDUAK
IZENA EMAN DUTENEKIN ZEHAZTUKO DIRA**

Zirkuitoetako gidariak

Pablo Irizar eta Egaña anaiak itxaropentsu denboraldi amaierarako

Bergarako gidariek azken urteetan emaitza onak lortu dituzte zirkuitoetan jokatuak txapelketetan. Aurten go denboraldian ez dute lasterketarik irabazi, baina 3 lasterketa falta dira eta oraindik irabazteko itxaropentsu agertzen dira.

Pablo Irizar Citroen ZX kopan ari da korritzen eta sailkapen orokorrean 5. postuan dago. Joan zen asteburuan Alcañizen izandako lasterketan 4. postua lortu zuen eta Irizarren pozik agertu da orain arte egindako lanarekin. *"Aurten gustora nabil. Oso maila bandia dago, Turismo mailatik gidari asko etorri baitira. Hala ere, txapelketa amaitzeko 3 lasterketa falta direnean 5. postuan nago eta postu bat edo bi igotzeko aukera dut"* esan digu Irizarrek.

Citroen ZX txapelketa azaroan bukatuko da eta gelditzen diren lasterketak Madrilan (Jaraman), Misanon (Italia) eta Xerez-en jokatu dira. *"Geratzen diren lasterketatik Xerezekoa da gehien gustatzen zaidana. Hala ere, irabaztea oso zaila izango da Iñaki Goiburuko gidari hondarribitarra oso ondo baitabil"* esan digu zirkuitoetan 9 urte daramatzan gidariak.

10. postuan

Martin Egañak joan zen urtean AX kopa irabazi ondoren aurten ZX

kopara igo du eta Alcañizeko azken lasterketa jokatu baino lehen 10. postuan zegoen sailkatuta. *"Alcañizen 3. postuan nindoan eta olio mantxa bategatik labandu eta ezin izan nuen lasterketa bukatu. Bestela lehenengo urtea izateko pozik nago lortutako emaitzekin. Kotxea berandu hartu nuen eta entrenatzeko denbora gutxi izan nuen, baina ikusten dut gero eta bobeto nabilela eta hori oso garrantzitsua da"* esan digu Egañak.

Honi ere 3 lasterketa geratzen zaizkio txapelketa bukatzeko eta Misanon (Italia) jokatu den

lasterketa izango dela irabazteko aproposena esan digu. *"Beste bi zirkuitoak gainontzeko gidariek oso ondo ezagutzen dituzte. Italiakoa, berriz, denontzat zirkuito ezezaguna da eta hori kontutan izanda irabazteko aukera gehiago edukiko dudala uste dut"*.

Citroen Saxo kopan

Juan Antonio Egaña aurten AX koparen orde jarri duten Citroen Saxo kopan ari da lehian. Hasiere ona izan zuen arren, ondorengo emaitzak ez dira hain onak izan jokatuak 4 lasterketetan.

"Ondo hasi nintzen, baina gero oso suerte txarra izan dut. Entrenamenduetan emaitza oso onak egin ditut, esate baterako Bartzelonan entrenamenduetatik lehenengo postuan irten nintzen eta gainontzeko lasterketetan entrenamenduetan 3 lehenengoen artean amaitu dut. Baina gauza bategatik edo beste bategatik ezin izan dut aurrean bukatu" adierazi digu Juan Antonio Egañak.

Txapelketa bukatzeko 3 lasterketa falta direnean Egaña 60 partehartzaileetatik 10. postuan dago eta Xerezeko lasterketa irabazteko itxaropentsu da.

Citroen AX eta Saxo kopetan aurten lasterketarik irabazi ez duten arren, sailkapen nagusian lehen postuetan aurkitzen dira hirurak



Pablo Irizarri hiru lasterketa geratzen zaizkio ZX kopa amaitzeko eta sailkapen nagusian 5. postuan dago.

Golf eta piraguismo ikastaroak

Udaleko Kirol Zerbitzuak golf ikastaro bi antolatu ditu 14 urtetik gorakoentzat.

Lehenengo ikastaroa irailaren 21ean hasiko da eta golfaren oinarriko arauak ikasteko aukera izango da. Irailaren 21ean, 28an eta urriaren 5ean Zabalotegiko frontoian izango da ikastaroa eta urriaren 12 eta 13an Lagraneko golf zelaietan ikasitakoak praktikan jartzeko aukera izango da. Bergarako jarduerak arratsaldeko 15:00etatik 18:30etara izango dira eta Lagranen, aldiz, goizeko 10etatik aurrera. Kirol Zerbitzuko bazkide direnek 10.000 pzta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 12.500 pzta.

Golfean zerbait gehiago jokatzen dakitenek hobekuntza ikastaroa egiteko aukera izango dute Urturiko Izki golf zelaietan. Ikastaroa irailaren 28an eta 29an izango da goizeko 10etatik ordubatera eta arratsaldeko 3etatik 6etara. Kirol Zerbitzuko bazkideek 5.000 pzta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 6.000 pzta.

Datorren asteburutik aurrera piraguismoa

Golf ikastaroaz gain, Kirol Zerbitzuak piraguismoan eskimotajearen teknika lantzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa datorren asteburuan izango da Arra-



Musakola kiroldegian emango da piraguismo ikastaroa.

sateko Musakola kiroldegian. Larunbatean goizeko 10etatik ordubatera izango da eta arratsaldeko 4etatik 6etara. Igandean, berriz, jarduerak goizeko 10etatik eguerdiko ordubietara izango dira. Ikastaroan

parte hartzeko 14 urte izatea ezinbestekoa da eta gutxienezko ikasle kopurua 10ekoa izan beharko da. Kirol Zerbitzuko bazkideek 3.000 pzta. ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 4.000.



Sari ugari banatuko dira Herri Krosseko onenen artean.

San Martin Krossa Zapatuan

San Martin Herri Krossa jokatuko da zapatuan 17:00etan. Irteera San Martin plazan izango da eta izena emateko epea lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago itxiko da plazan bertan. 14 urtetik beherakoek 1.200 metro egin beharko dituzte. 14 urtetik 18 urtera bitartekoek 3.000 metro eta 18 urtetik gorakoek 9.000 metro. 14 urtetik beherakoentzat dominak eta opariak izango dira 3 onenentzat. Hurrengo mailako 3 onenentzat, berriz, 2.000 pezetatik 5.000 pzta.ra bitarteko sariak eta nagusien artean 3.000 pzta.tik 10.000 pzta.ra bitartekoak. Halaber, 50 korrikalari onenek kamisetak izango dituzte eta herritar onenek sari bereziak.

AGIRREBEÑA
oinetakoak
arropa denda
lenzeria
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

LAZKANO
Oinetakoak
Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

TXINPARTAK

San Martinetako pilota partiduak

Asegarcek prpfesionalen pilota jaialdia antolatuko du astelehenean 17:00etan Udal Pilotalekuan. Bi partidu iragarri dira: Zabalo eta Oliden, Errandonea II eta Mendiaren aurka eta Etxaniz eta Errasti, Nagore eta Zezeagaren aurka.

Goi mailako eskubaloi partidua

BKEko Eskubaloi sailak goi mailako eskubaloi partidua iragarri du astelehenerako. Emakumezkoen Ohorezko mailan ari diren Bidebieta eta Hernanik jokatu dute 19:00etan kiroldegian.

Bergara-Elgoibar

BKEko bigarren mailako futbolari jubentilek zapatuan hasiko dute denboraldia, Elgoibarren kontra Ipintzan, 16:30etan.

Mendi irteerak

Pol-Polek eta Alpino Gorlak Arkamuko mendietara irteera antolatu dute irailaren 22rako. Irteera, goizeko 7etan Frontoian. Gazteak, berriz, egun berean Lizarrusti-San Miguclera joango dira. Irteera 8:30etarako iragarri da Beheko Estazioan.

Ander Berraondo

Realetik Aloña Mendira

Ander Berraondo futbolariak infantil mailatik jubentile mailara arte 5 urte egin ditu Realean. Joan zen ekainean Realean ez zuela jarraituko esan ondoren, gaur egun Aloña Mendirekin 3. mailan jokatzeko du.

- Zer moduz Aloña Mendin?

- Orain arte gustora nabil. Ligako lehen partiduan ez nuen jokatu eta bigarren partiduan jokatu eta irabazi egin genuen.

- Aloñatik Realera diferentzia handia izango da, ezta?

- Bai, Realean entrenamenduak belarrezko zelaietan egiten genituen eta Aloñan, berriz, arean. Realean abuztuan entrenatu behar genuen eta orain, 15 egun behintzat jai izan dugu. Halere, Oñatin giro askoz hobea dago. Jokalariak hobbyz daude eta gainera Bergarako jendea dago eta horrek asko errazten du.

- Oñatiko zaleak Bergarakoak baino berrogoak omen dira.

- Bai, igandean jende piloia izan zen partidua ikusten Azkoagainen eta 800 bazkide dituzte.

- Horrenbeste denbora Realean izan ondoren ez jarraitzea pena emango dizu?

- Bai. 5 urte izan naiz Realean, infantiletan sartu nintzen eta jubentile mailara arte izan naiz. Oso momentu gogorra da ez duzula jarraituko esaten dizutenean.

- Realean jokatzeko aukera ez du edozei-

nek. Zer moduzko esperientzia izan da?

- Esperientzia ona izan da. Jubentiletan 15 urterekin Donostiara joan nintzen pentsio batera bizitzera eta asko ikasten da. Bergaran edade horrekin dena eginda daukazu, baina han eskolan ez duzu inor ezagutzen, pentsioan beste lagunekin bizitzen ikasi behar duzu eta asko ikasten da. Halere, futbolaria gauza asko kentzen dizu: esate baterako ezin zara lagunekin ikasbidaira joan eta erresponsabilitate handia daukazu.

- Zure momenturik onena Realean?

- Realean ez da izan. Kadete mailan Euskadiko selekzioarekin Galiziara joan ginen Espainiako Autonomien arteko txapelketa jokatzera. Finalurdenetarako sailkatu ginen eta Sevillan izan ginen. Une onak izan ziren.

- Etxeberriarekin jokatu duzu. Ze iruditzen zaizu egin zuena?

- Ondo egin zuen. Athleticek dirua jarri zuen eta ondo egin zuen.

- Zela ikusi duzu BKEko preferenteko taldea?

- Talde gaztea dute, baina kalitatea dute eta mailari eutsiko diotela uste dut.



"Realean baino giro askoz hobea dago Aloña Mendin".

"Oso gaizki pasa nuen jarraitu behar ez nuela esan zidatenean"



Argazkia: Bergara K.E.

Bergarako xake harrobia

Xake astea izango da Bergaran irailaren 14tik 20ra bitartean eta bertan herriko xakezale guztiak aukera paregabea izango dute euren trebezia erakusteko. Xakeak jarraitzaile ugari izan ditu gure herrian eta Pazkuetako zein San Martinetako jaie-tako programetan ez da falta izaten xake txapelketa edo erakustaldiren bat.

Xakezaleen gosea pizten joateko horra hor orain dela urte batzutako Bergarako Xake taldeko harrobiaren argazkia. Bergarak talde indartsua omen zeukan eta txapelketa ugari eskuratu zituen inguruko herrietako txapelketetan.

Horren lekuko, argazkian agertzen diren mutilek orain dela 14 bat urteko Pazkuetan jokaturako txapelketan domina ugari lortu zituzten. Horra hor argazkian euren sariekien harro-harro agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Jabi Madariaga, Ander Gabilondo, Asis Iriondo, Josexo Muniategi, Juan Carlos Gallastegi, Angel Iriondo eta Luis Mari Ugarte.




Mikel Gastelurrutia

PIANO ETA SOLFEO KLASEAK

(Goi mailako titulaziodun maisua)

☎ 76 50 59



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Truke Operazioa

Amuebladora Mondragonesa

EKARRI ZURE
KOLTXOI ZAHARRA...



...ETA 10.000 PTA.
ARTEKO DESKONTUA
izango duzu zure Atsedean
Sistema Berrian

FLEX



Loa kenduko ez
dizuten prezioak.
Zatoz eta galdetu!



grupo



Amuebladora
Mondragonesa

a. eme. interiores, Garibai, 9 ARRASATE
centro hogar muebles, Zigarrola, 1 ARRASATE